



Raul BOGAJO | FOKU

IKUSMIRA

ALDAMIOA GOITIK BEHERA

Goitik behera erori da egunerokoa antolatzeko darabilkigun aldamia. Pieza guztiak lurrean botata. Haurren agendak hutsik, albisteak beteegiak, beldurrak gainezka, egonezina jarioan... Aldamia al-txatu beharko da, baina beste era batera. Betikoak ez du balio ez ditugulako eskura betiko piezak. Nerabeak protestan irakasleek ikasgelan baino lan gehiago emango dietelako, haurrak kezkatuta as-pertu egingo direlako, gurasoak asmazioan puzzlea osatzeko, medikuntzan aditu bihurtu diren herri-tarrak supermerkatuan errietan nork harrapatuko komuneko paper gehiago... Dena hankaz gora, dena tokiz kanpo. Baina horrek ez du zertan erabat txarra izan behar, akaso lehengo toki hori ez zelako erabat ona. Akaso elkarrekin aspertuko gara eta partxisean jokatu dugu. Elkarri kontuak esan eta elkarri kontuak entzungo dizkiogu. Akaso elkarrekin egoteko modu berriak asmatu beharko ditugu eta gerta daiteke orain arteko manierak baino hobeak izatea. Auskalo.

Amagoia Mujika Telleria